



-a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan.

Julen Manterola

► **To cite this version:**

| Julen Manterola. -a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan.. 2008. <artxibo-00352804>

HAL Id: artxibo-00352804

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00352804>

Submitted on 13 Jan 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Izenburua - Title

-A MORFEMAREN ERABILERA (EZA) EKIALDEKO EUSKARETAN
(THE (NON) USE OF THE –A MORPHEME IN EASTERN BASQUE
DIALECTS)

Egilea – Author

Julen Manterola Agirre

Non argitaratzekoa – To be published in

Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarreko aktak.
Proceedings of the 2nd Conference of the Koldo Mitxelena Chair

Urtea – Year

2008

Testuaren izaera - Version

ZIRRIBORROA – DRAFT

Sarean non eskuragarri - Available at

<http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/>

-A MORFEMAREN ERABILERA (EZA) EKIALDEKO EUSKARETAN

Julen Manterola¹

julen.manterola@ehu.es

Euskal Herriko Unibertsitatea

0. Sarrera. Lan honen nondik norakoa

Lan honetan artikulua definitu deitu izan den horretaz arduratuko gara, *-a* morfemaz, hain zuzen ere, ekialdean gutxiago erabiltzen omen den horretaz. Mitxelenaren omenez ari garen honetan, eta antzemanik haren hitz eta ideien itzal luzeak gidatuko gaituela bide honetan, ekin diezaiozun lanari haren aipu batekin (1987: 266):

De cualquier modo, y aunque el empleo de demostrativos en función de artículo sea debida a influencia extraña, el caso es que nosotros parecemos habernos pasado de la raya yendo más lejos que cualquiera de los demás. Hay, con todo, gradaciones en la frecuencia de su uso. De atenernos a una mera impresión, se diría que es empleado [artikulua] más profusamente en el centro y oeste del país que en el este, más en general al sur que al norte.

-a morfema ekialdean mendebaldean baino gutxiago erabiltzen da, beraz. Ez dakit zehatz Mitxelenak iparra eta hegoa bereizten dituen gogoan zer duen; guk, gure lan honetan eta arduratzen gaituzten artikulua erabileremu edo testuinguruez denaz bezainbatean, zubererazko zein erronkarierazko *-a* morfemaren erabilera batera hartuko ditugu, egoera linguistiko beraren (edo bertsuaren, juzku absoluturik nahi ez dugunontzat) lekuko. Aipatzen ditudan artikulua erabileremu horiek honakoak izango dira: adjektibo predikatuak batetik, *etxea eder da* bezalakoak, eta bestetik objektu posizioetako izenak, *ardo edan du* bezalakoak. Bestelakoetan ere zer gertatzen den aipatuko dugu tarteka, existentzialetan aurkitzen duguna adibidez, baina aurreko bi horiek izango dira deskripzio eta analisi saio xume honen gune.

Baina, zer da gure aztergaia? Edo hobeki galdetuta, zer da orain arte neutral izan nahian “*-a* morfema” izendatu dugun hori? Gauza jakina da “artikulu definitu” deiturak, bereziki izendapen horri dagokion bigarren hitzari begira, zalantza eta buruhauste ugari ekarri duela; izan ere, *-a* morfemaren izaera definitua ez baita erabatekoa eta zirrikiturik gabea. Maiz ageri zaigu delako artikulua definitu hori euskaraz, non eta beste hizkuntzekin dugun esperientzia linguistikoaren arabera agertu behar ez litzatekeen tokietan: predikatuetan, perpaus existentzialetan... Lan honen hasieran, *-a* bezalako morfema bati zein ikuspuntutik begiratuko diogun zedarrituko dut, arestian aipatu dudana ekialdeko erabileraren jatorria hobeki konprenitzen lagunduko digulakoan.

Bilakabide diakroniko jakin baten emaitza gisa aztertuko dut artikulua, onartuz abiapuntua inongo artikulurik existitzen ez zeneko garaia izan zela. Bilakabide diakroniko honetan ekialdeko artikulua erabilerari euskararen izaera arkaikoa aitortuko diogu, bestek ere egin izan duen bezala (Lafon 1954); izaera arkaiko horrek hizkera horietako gramatikari ematen dion nolakotasunari erreparatuta, galdera handinahia pausatuko dut: nolakoa zitekeen euskara artikulua bere gramatika sartu baino lehen? Galdera handinahia erantzun apala jarraituko zaio, ez baitut besterik egingo turkiera edo koreera bezalako hizkuntzak gogora ekartzea baizik, hizkuntza horiek ezagun dugun euskara arkaiko horren antzeko direlakoan.

¹ Egilea Eusko Jaurlaritzako doktoreak prestatzeko diru-laguntzen programaren barrenean dago; ikerketa lan hau ezin izango zen diru-laguntza hori gabe burutu, hona eskerra, beraz. Céline Mounole eta Joseba Lakarrarekin izandako hizketaldiek ere lan honen edukia aberastu dute.

Mitxelenak gustuko izango zuelakoan gogoeta batekin, besteak beste, amaitu nahi nuke lan hau: artikuluan zehar -a morfemaren gorabeherak ikusi ondoren, Mitxelenak proposatutako euskara batu zaharraren ideiarekin gure ekarpenak ezkontzen saiatuko gara. Hemen ere egin nahia, edo jakin nahia, ez du gure ezinak gaindituko, eta gehienez ere azterketa ildo posibleak aipatu besterik ez da egingo.

Hona, bada, hona bitarte aipatu ditudan edukiak, hemendik aurrera aurkeztuko ditudan ordenaren arabera emanak: lehen atalean artikulua definitua, -a, zer den eta zein oinarri teorikoren arabera aztertuko dugun zehaztuko dut. Bigarrean lan honen muina eskainiko dut: bertan adjektibo predikatuak eta objektu posizioko izenen gorabeherak aztertuko dira, azpiatal banatan. Hirugarren atalean egindako ekarpenak laburbildu eta etorkizuneko azterketa ildoak zein izan daitezkeen iradokiko da.

1. Zer da artikulua definitu bat? Zer da -a?

“Artikulua definitu” deiturak bi atal ditu, “artikulua” eta “definitu”. Bata zein bestea izan dira eztabaida iturburu hizkuntzalaritzaren historian zehar, baina euskararen kasuan artikulua (hala deituko dugu oraingoz) definitutasunarekin duen harreman lausoa izan da bereziki eztabaidagune (ikus Artiagoitia 2002, Etxeberria 2005 eta Rodríguez 2003, besteren artean, gramatika sinkronikoetan euskal artikulua ezaugarriek ematen dituzten arazoetarako). Mitxelenaren “parecemos habernos pasado de la raya” horretan dago euskal artikulua definitutasunarekin dituen arazoaren gakoak; -a horren erabilera “gehiagikeriaren” marra gainditu izanaren adierazgarri dugu esaldi existentzialetan aurkitzen duguna:

- (1) a. ** *Il y a le vin*² vs. b. ✓ *Ardoa badago*
** *Hay el vino*
** *There is the wine*

Milsark (1977) lanean azaltzen zaigun bezala, esaldi existentzialetan “definiteness restriction” deitzen duen zerbait dugu: esaldi existentzialetan (*il y a*, *hay* eta *there is* hasiera duten horietan) ezin da izen sintagma definitu bat foko posizioan egon,³ hots, izen sintagma [-definitu] bat behar dugu halakoetan. Egia esan, oinarritzko deskripzio maila honetan ere arazoa dugu, definitutasuna bera, kontzeptu edo nozio gramatikal gisa, ez baitugu behar bezala ulertzen. Terminoaren tradizioak, esanguratsua da, mendebaldeko hizkuntzen gramatikagintzan du sustraia, artikulua definitua eta indefinitua duten [+/- definitu] tasunean: ingeleseko *the* vs. *a* edo erromantzeetako *le/el* vs. *un* bezalako pareak zeuden analisi gramatikal horren oinarrian. Esan dezagun, beraz, teoriak ezin argi ditzakeen horietarik ihes egin nahian eta deskripzioaren mailarik apalenera jaitsiz, *il y a* / *hay* / *there is* hasiera duten esaldietan *le* / *the* / *el* duten izen sintagmak debekatuak direla. Euskaraz, baina, *le* / *the* / *el* horiekin batera artikulua definitu izendatzen den -a hori esaldi existentzialetan zilegi da, 1)b. adibidean erakutsi bezala.

² “**” zeinua agramatikalak diren perpaus edo formentzako erabiliko da.

³ Egia da badela hizkuntza hauetan esaldi existentzialetan artikulua definitudun sintagmak erabiltzeko aukera, Milsarkek berak ingeleseko adierazten duen bezala, hizketaldian zerrendatzeak suertatzen direnean, bereziki: gaztelaniaz *luego... también había la piscina* bezalako adibideak ontzat ditut, eta nago frantseseko *après il y avait la piscine aussi...* bezalakoak ez direla txar-txarrak. Ez naiz halako testuinguruetatik arduratuko lan honetan.

Baten batek pentsa lezake aski dugula erabakitzea $-a$ hori ez dela artikulua definitu horietako bat; baina gure gramatikariek⁴ beste hizkuntzetan artikulua definitu deituak ziren horiekin identifikatzen dutenean ez dute halabeharrez huts egiten. Identifikazio ($-a$ beste artikuluekin parekatzen duena) honen gako nagusietako batek halako elementuen jatorriarekin du zerikusia, eta hain zuzen bide horretatik, diakroniarenetik eta morfemen jatorriarenetik, saiatuko gara zehazten guretzako artikulua definitu bat zer den.

Greenbergen (1978) lanaren bidetik, Himmelmannek (1998; 2001) artikuluen azterketa bilakabide diakronikoaren begien arabera egituratzen du. Horrela, definitutasunaren teorien (hizkuntzen egoera sinkronikoez arduratzen direnak nagusiki) bidetik datozen arazoak neurri batean bazter uzten ditu, definitutasuna⁵ artikuluen izaeraren ataletako bat baizik ez dela aldarrikatuz (Himmelmann 2001: 832):

[D]efiniteness, though undeniably of central importance to the grammar and typology of articles, is only one of a number of meanings that can be conveyed by articles.

Greenbergen artikuluen gramatikalizazio bidearen eskema ere gogora ekartzen du, guk (2)n ematen duguna:

(2) erakusle → artikulua definitu → artikulua espezifikoa → izen markatzaile

Ikuspegi honen arabera, artikulua definitua erakusleen gramatikalizazio bidearen fase bat baizik ez da, erakusleak posizio adnominalen gramatikalizatzen direnekoa. Gramatikalizazio bide hori continuum bat baizik ez da, eta continuum horretan bereizten dugun artikulua definituaren garaia, beraz, konbentzio metodologikoa baino ez. Continuum diakroniko horretan aurkitzen ditugun elementu beraren agerkariak izendatzeko “D-elementu” terminoa darabil Himmelmannek; “materialki” morfema bera dena, baina denboran zehar bere izaera aldatzen duena. Terminoak termino, guk hemen “artikulua” izendapena erabiltzen segitzeko ez dugu arazorik izango, irakurleak ezagunena dukeena berau baita.

Bilakaera diakroniko horrek hartzen dituen ezin zenbatuzko xehetasun eta norabide ezberdinek ekartzen dute hizkuntza ezberdinetako artikuluek modu ezberdinean jokatzeko, eta, ondorioz, sinkronian definitutasunaren ildotik egiten diren hurbilketetan aurkitzen diren desadostasunak.

Esan dezadan, atal hau bukatzeko, euskarazko $-a$ hori beste hizkuntzetan artikulua definitu gisa izendatu dituzten elementuen antzera, erakusle batetik datorrela, $*(h)a(r)$ ⁶ gisa berreraiki izan dena; (2)ko bilakabidean bete-betean sartzen den D-elementua da, hortaz, eta neurri horretan pareka daiteke frantseseko *le/la*, gaztelaniako *el/la*, ingelesko *the* eta besterekin. Jatorri berdineko, bai, baina ibilbide ezberdineko, denak ere. Ibilbide hauen izaera nabarraren lekuko, euskararen baitako adibidearekin

⁴ Ikus Gómez (2007: 233-54) tradizio gramatikagilearen “artikulua” terminoaren erabileraren gorabeherentzako.

⁵ Gogoan har bedi, gainera, definitutasuna artikuluen izaera gainditzen duen nozioa dela, izan ere hainbat hizkuntzatan artikulua ez diren baliabideak erabiltzen baitira berau adierazteko: hitz ordena, azentua... Txinera eta suomiera artikulua gabeko hizkuntzak (orain arte bederen) beste definitutasun-estrategia hauen adibide izan daitezke.

⁶ Ez dut inoiz ondo ulertu berreraikitako forma batean parentesi artean diren hotsek ze status teoriko duten. Dena den, badirudi $-a$ elementuaren lekukotasun arkaiko zenbaitek hasperena gorde duela (cf. Donemiliagako agiri bilduma bateko 1025eko *Udalha*); argibide gehiagorako ikus Manterola (2006) laneko eranskina.

- (6) a. Haurra **eder** zen. Casenave-Harigile (2006: 60)
 b. Zühaintze horien ororen liliak **eder** dira. Casenave-Harigile (2006: 54)
 c. Han, hurak **hon** dira, aidea **sano**, mendiak, oihanak eta nabak **handi**...
 Otsibar (2003: 81)

(4) eta (5)eko adibideak zuzeneko hizketan entzundakoak eta gerora beste hainbatetan berretsitakoak dira. (5a) eta (6a) konparatu nahi nituzke, hortxe ikusten baitut ekialdearen barrenean mendebalderagoko eta ekialderagoko hizkeren arteko aldea. Egia da (5a) adibidea ezezkakoa dela (6a)ko baieztapenaren ondoan, eta (6a) lehenaldian dagoela (5a)ko orainaldiaren partez, baina nago bi faktore horiek deuseztuta ere artikularen erabileraren kontrastea gordeko litzatekeela; hots, Nafarroa Beherean *haurra polit da* txarra litzatekeela.⁸

Badugu, halaber, beste adibide sorta bat, azalpen zinez interesgarria jasotzen duena Lafitteren eskutik (1944: 123-25, 417), “navarro-labourdin littéraire”-z ari denean (berak han-hemenka emandakoak nire ordena ezarriz ematen ditut hemen):

- (7) a. Aita **ona** da a.' hi baino **hobea** duk
 b. **Eder** da chutik hiltzea b.' **samur** da

Lafittek berak beste zenbait txandakatzerentzako (*kexu da* vs. *kexua da*, *eri da* vs. *eria da*...) ematen duen azalpenak neurri batean balio du, nik uste, (7a, a') eta (7b, b')rentzako ere: haren hitzetan “au nominatif défini ils marquent en général un état stable et au nominatif indéfini une disposition passagère” (Lafitte 1944: 125). Milsarken lanean ere (1977) agerian uzten da adjektiboaren nolakotasunaren pisua, ezaugarri betierekoaren ala iragankorraren adierazle izan, berak aipagai duen ingelesaren fenomenologian. Dena den, Lafitteren eta Milsarken azalpenez haratago, adibide hauen barrenean ere badira xehetasun batzuk azalpen honi ihes egiten diotenak: horren erakusle dugu (7b) adibidea, (4ab.)rekin batera doana, dirudienez betiereko ezaugarria adierazten baitu, eder izatearena, baina (5b)rekin bat ez doana artikularen erabileran.

Berehalako galdera honakoa da: xehetasun hauek ze oinarri semantiko, kognitibo edo dena delakoa dute? Eta zer eragin dute sinkronian antzematen ditugun alde hauek artikularen bilakabide eta hedatze diakronikoan? Zer dela eta iritsi da Nafarroa Behereko hainbat hizkeratako adjektibo predikatu zenbait artikuludun forma ezinbesteko izatera (ikus (5))? Bistan dena, auzi honetan guztian xiberotarreko adibideak ditut arkaikoentzat, ia “inon” artikulurik erabiltzen ez duen hizkuntzaren egoera agertzen duena; honen berresgarri inguruko hizkuntza erromantzeen jokabidea dugu: hauetan adjektibo predikatuek ez dute inoiz D-elementurik hartzen (*l'enfant est (*le) beau*, *el niño es (*el) guapo*). Greenberge (1978: 63-67) ere halaxe dio, gogora ekartzen duenean antzeko predikatuak direla bilakabide diakronikoan D-elementu bat azkenik hartzen duten egiturak.

Aurreko paragrafo honen hasierako galderak badu erantzuna, nik uste, edo erantzunaren hasiera izan daitekeenaren bidean ezarriko gaituen gogoeta: Lafittek esan bezala adjektibo predikatuen izaera semantikoak, ezaugarri betiereko ala iragankor, zer esan handia du D-elementuen hedatzean, batetik; bestetik, halako esaldietan subjektuaren izaerak ere erabakigarri behar du izan, neurri batean bederen. Bi hauen

⁸ Jakina, Nafarroa Beherea aipatzen dudanean burutan dut ez dela lurralde osoan artikulua berdin erabiltzen, eta herritik herrira juzkuak alda daitezkeela; ondorengo lanetan etorriko dira hizkeraz hizkerako eta testuz testuko azterketa xehekatua. Oraingoz, baina, hemen aurkeztuko dudana irizpide semantikoaren aurkezpenarako nahikoa da, nik uste, adibide hauekin.

arteko, subjektuaren eta predikatuaren (adjektiboa ala ez) arteko elkarreraginaren xehetasunek beharko dute erantzunaren parte izan.

2.1.1. azpiatalean gogoeta honen oinarria zein izan daitekeen ikusiko dugu, Milsark izeneko hizkuntzalariaren lan bat eztabaidara ekarriz.

2.1.1. Milsarken (1977) esaldi existentzialak

Milsarkek bere lanean ingelesezko esaldi existentzialak ditu aztergai, fokalizatzen den elementuaren aurretik *there is* dutenak, alegia. Besteren artean lan horretan bi kontu interesgarri aztertzen dira, esaldi existentzialak osatzea ala osatu ezin izatea baldintzatzen dutenak; badira, beraz, halako esaldiak osatzea oztopatzen duten konfigurazio jakin batzuk: batetik badirudi halako esaldietan ezin erabil daitekeela subjektu definiturik, goian (1a)n ikusi dugun bezala. Definitutasunaren nozio lausoa erabili beharrean, nahiago du *strong* eta *weak*⁹ diren izen sintagma bereizi: lehenak, *strong* edo indartuak, erakusleak, izenordainak, *all*, *each* bezalako zenbatzaile unibertsalak dituztenak dira, esaldi existentzialen gramatikaltasuna oztopatzen dutenak, (7)n ikusten dugun bezala:

- (7) a. There was ***the/*that/*every/*each student** in the classroom

Izen sintagma *weak* edo ahulak, aldiz, esaldi existentzialak onartzen dituztenak dira (artikulu indefinitu deritzoguna, zenbakiak, *some...*):

- (8) a. There was **a man** in the room
b. There were **some men** in the room
c. There were **three men** in the room

Esaldi hauetan guzietan, beraz, jatorrizko edo *there* sartu baino lehenagoko konfigurazioan ez dago arazorik, (9)n ikusten dugun bezala, ez izen sintagma indartu (9a) ez ahuldunetan (9b) ere. Esaldi existentziala osatzeko tenorean, hots, *there*-dun esaldia egin nahi dugunean, haxe oztopatzen (7) ala baimentzen (8) duten izen sintagmen arteko bereizketa egin beharra du, *weak* eta *strong* izendapena proposatuz.

- (9) a. **The/that/every** student was in the classroom
b. **A student** was in the classroom

Orain artekoan, 2.1.1. atal honetan ingelesezko esaldi existentzialetako *there* + kopularen ondoko izen sintagmaren gorabeherak aztertu ditugu, Milsarken eskutik. Baina goian aurreratu bezala, bada bigarren kontu interesgarri bat ere, ingelesezko esaldi existentzialetan gertatzen dena eta (10) adibidearekin irudikatzen duena:

- (10) a. ** There are linguists intelligent
b. ✓ There is a drunk man

Milsarken behaketaren muina honetan datza: betiereko ezaugarria adierazten duten adjektiboek esaldi existentzial agramatikalei lotuta ageri dira; ezaugarri iragankorra adierazten duten adjektiboak, aldiz, esaldi existentzial gramatikaletan daude. (10a) adibidean ingelesezko *intelligent* ‘argia’ adjektiboa dugu, betiereko

⁹ *Weak* eta *strong*, “ahul” eta “indartu” gisa itzul daitezke.

ezaugarria adierazten duena, eta (10b) adibidean *drunk* ‘mozkorra’, egoera iragankorra adierazten duena. Hauxe da, hain zuzen ere, Lafittek, artikulu definituaren erabileraz / ez erabileraz ari denean, darabilen irizpide bera, *kexu da / kexua da, eri da / eria da* adibideak hizpide dituenen. Milsarkek berak gogoratzen duen bezala, gaztelaniazko *ser* eta *estar* aditzen txandakatzearekin harremandutako fenomeno da hau (*es inteligente / está borracho*).

Nola azaltzen du Milsarkek (10a)ko agramatikaltasuna? Bere esanetan, halako esaldien jatorrizko edo sakoneko konfigurazioan datza arazoa, ez da (7) eta (9a)ko adibideetan gertatzen zen bezala esaldi existentzialetarako bidean dagoen transformazioaren baitakoa. Kasu honetan bestelakoa da agramatikaltasunaren sorburua: berak argitzen duen bezala, betiereko ezaugarria adierazten duten predikatuak izen sintagma indartueetatik baizik ezin dira predikatu; izen sintagmak ahul direnean ez dute betiereko ezaugarrizko predikaziorik onartzen. Ikus dezagun zer gertatzen den *intelligent* adjektiboarekin, betiereko ezaugarria adierazi nahi duen predikatuarekin:

- (11) a. ** A man was intelligent
b. The man was intelligent

Goian ikusi dugun bezala, (11b) esaldia ezin da esaldi existentzial bihurtu *there* sartuta, *the man* izen sintagma indartua baita. (11a)ri dagokionez, berriz, bere horretan ere txarra da, eta beraz *there* sartuta ere txarra izango da. Arrazoiak ez dira garbi, Milsarken esanetan, (11a) bezalakoan agramatikaltasuna azaltzeko; baina hala da, izen sintagma ahulek ez dute betiereko ezaugarria adierazten duen predikaziorik onartzen. Beste hitzetan esana: betiereko ezaugarria adierazten duten predikatuak subjektuan izen sintagma indartua behar dute.

Hurrengo atalean honakoan esandakoak euskarari zer laguntza eskain diezaiokeen zehazten saiatuko naiz, honenbestez.

2.1.2. Nafarroa Behereko *eder da* vs. *ederra da*

Aurreko atalean Milsarken zenbait gogoeta ekarri ditugu hona. Atal honetan bertan ikasitakoek ekialdeko euskararen xehetasunak ulertzen lagun gaitzaketan aztertuko dugu; jakina, ez dugu paralelo zuzenik aurkituko guri dagozkigun datuetan, eta gorago esan bezala, ez dugu analisi finko eta osorik eskainiko. Baina, horiek oro, espero dut hemen markatutako bidea ondotik etorriko direnentzako baliagarri izango dela halako fenomenoan azterketan.

Itzul gaitezen orain (4) eta (5)en eman ditudan Nafarroa Behereko adibideetara, hemen (12)n errepikatzen ditudanak.

- (12) a. (Jestu) horren egitea / jestu hori ez da **pollit**
b. Ume hori ez da **pollita** (**Ume hori ez da **pollit**)

Gorago ikusi bezala, eta (6)eko adibideek iradokitzen duten bezala, Zuberoan halako adibideak, denak ager daitezke *-a* hori gabe, artikulurik gabe. Zerk erabaki du, beraz, Zuberoatik mendebaldeko, Nafarroa Behereko zenbait hizkeratan bederen, artikularen erabilera egitura batzuetara zabaltzea, beste batzuek, oso antzeko badira ere, artikulugabeko forma gorde duten bitartean? Nik sinesten dut hemen ere, euskararen hizkera hauetan Milsarkek ingelesarentzako aipatutakoez bestelako efektuak baldin baditugu ere, predikatuetakoa adjektiboan izaeraren eta subjektuetako izen

sintagmaren izaeraren araberako efektu gisa ulertu behar direla artikuluekin gertatzen direnak.

Hasi gaitzen, hortaz, (12)ko adibideen gaineko gogoetarekin. Esaldi horiek kopularen, *da* aditzaren bi aldeetara ditzuten osagaiei begira, pentsa genezake lehenik eskuinetara dagoen predikatuan egon daitekeela gakoa; pentsa liteke “hara, (12a)ko adjektibo predikatuak egoera iragankorra adierazten du, eta (12b)koak betiereko ezaugarria, eta hartara, *urduri dago / urduria da* bikotean bezala, horren araberakoa da artikulua erabileran”. Baina ez du ematen halako ñabardurarik, ezaugarri betiereko eta iragankorren arteko alderik dagoenik (12)ko bi adibideen artean; adjektiboaren interpretazio iragankorrik ez dut sumatzen posible denik, eta izatekotan, biak ere betiereko ezaugarriaren interpretazioarekin lotzen dira hobekien.

Une egokia izan daiteke oraingoa Lafittek *eder da chutik hiltzea*¹⁰ bezalako esaldiez esaten duena hona ekartzeko; ez dut uste, beste gainerakoan, arazo sakonik dagoenik (12a)ko *horren egitea ez da polit* esaldiarekin parekatzeko. Lafitteren esanetan, beraz, predikazioaren interpretazioa orokorra edo generala da (1944: 124):

[...] chaque fois que l'on veut donner un sens neutre ou général à l'adjectif attribut, on le met au nominatif indéfini. Ex. on da eskolatzea, il est bon de s'instruire [...]

Hainbestearainokoa ados egon gitezke Lafittekin, deskripzio mailan bederen; baina gu, kasu honetan artikulua AGERTZEN deneko adibidearen (12b) nondik norako diakronikoa azaltzen saiatzen ari gara, galdetuz zerk eragin ote zuen horrelako adibideek lehenago hartzea artikulua. Nire susmoa da beharbada esaldiaren subjektuari begiratu behar diogula, esanez *ume hori* batetik eta *jestu hori / jestu horren egitea* bestetik, ez direla erabat berdinak, nahiz eta itxura guzieren arabera denak diren, Milsarki jarraiki, izen sintagma indartuak, bere erakusle edo artikuluekin.

Nire oraingo ustearen arabera, seguru bainaiz aurrerantzean gaian gehiago sakondu eta eztabaidatu ahala usteak findu eta aldatuko ditudala, (12b)ko *ume hori* sintagmak askoz ere zama erreferentzial handiagoa du (12a)ko aditz izenak baino. Nolabait esateko *ume hori* sintagma deiktikoa ainguragarriagoa da mundu erreal eta ukigarriko erreferente batekin, *xutik hiltzea* ala *jestu horren egitea* bezalako sintagmak baino, errealitate ukigarrian ainguratze lausoagoa dutenak. Esango nuke, ideia bestela formalizatzeko modurik ez badut ere, *pollit izan* predikatuan *-a* artikulua horren araberakoa dela, esaldiaren subjektuaren nolakotasunaren araberakoa, alegia. Badirudi, darabildan argudioaren berresgarri, *jestu horren egitea* bezalako sintagmek adierazten duten ekintza, nominalizatua izanda ere, ez dela oso-osokoa, ebenturatu gabea edo denboran errepika daitekeenetakoa dela; gauza ezaguna da halako ebentuek bere ingurura mugatzailerik gabeko izenak erakartzen dituztela (ikus Hopper eta Thompson (1980: 252) lanean ematen den eskala), eta horregatik izan liteke, beharbada, horietarik predikatzen diren adjektiboek artikulua hartzeko tenorean horretan lehenak ez izatea. Argudia daiteke *jestu hori* ez dela, hala ere, *jestu horren egitea* bezalako gertakari bat, erakusledun sintagma hutsa baita, *ume hori* izan daitekeena bezalakoa, baina nago horren azpian, hobeki formalizatzeko gai ez banaiz ere, *jestu horren egitea*-ren elipsia edo dagoela.

Honen guztiaren arabera, beraz, Milsarkek emandako *weak / strong* banaketan sakontzeko modua ere bada hau, (12a) eta (12b)ko predikatuetakoa artikulua agerrera / ez agerrera Milsarkek analizatu nahi duen fenomeno beraren efektu gisa ikusi nahi badugu, bederen: izen sintagma indartuen artean ere aldeak badira (12a, 12b), eta

¹⁰ Hain gai poliedrikoan beste aztertu gabeko atala suertatzen zaigu parez pare: hitz ordenaren araberako ñabardurak ere esanguratsuak izango dira, noski (*eder da xutik hiltzea / xutik hiltzea eder da*).

Nafarroa Behereko euskaren diakroniaren kasuan horren efektua¹¹ zera izan da, betiereko ezaugarria adierazten duen predikatuetan D-elementuaren hedatzea horren arabera erabakitzea. Nolabait esateko, izen sintagma “indartuenak”, tipikoki esaldi existentzialetan debekatuak direnak, artikulua errezago onartzen dute predikazioan.

Atal honekin bukatzeko, Diesing-en (1992) laneko adibide esanguratsu bat ekarri nahi nuke, erakusten baitu subjektuko izen sintagmaren espezifizitate mailak predikatuan duen eragina; gogora dezadan horren kidekoa izan dela, espezifizitate edo erreferentzialtasun mailarena, nire proposamena, (12ab)ko adibideen arteko aldea azaldu nahi izan dudanean. Diesing-ek ondoko esaldiak ematen ditu (bere (68-71) nire (13, 14) dira hemen), ezaugarri iragankorra adierazten duen *sick* ‘gaixorik’ adjetibodun predikatuarekin, Milsarkekin gorago (9,10,11) ikasi dugun bezal-bezala:

- (13) a. Children are sick.
b. There are children sick.

Milsarkek erakutsi digun bezala, ez da arazorik subjektu ahul bati, *children*,¹² egoera iragankorra adierazten duen predikazioa, *to be sick*, ezartzea. Hortaz, *there* sartu eta esaldi existentziala egiten dugunean ere emaitza gramatikala da. Ikus, aldiz honakoa:

- (14) a. Children **with red rashes** are sick.
b. **There are children **with red rashes** sick.

Utz ditzagun Diesingen beraren hitzak mintzatzera (1992: 48-49):

[T]he stage/individual distinction is obviously subject to contextual influences [...] Predicates that are of one category in a somewhat neutral context can be pushed into the other category in various ways.

[...] Adding **descriptive material** to the subject NPs changes the behaviour of these predicates, however. In this case the predicates can behave like individual-level predicates in that they are prohibited in *there*-insertion contexts [...].

[...] I will discuss this property of more “specific” NPs [enfasia nirea]

Hitzon arabera, badirudi subjektuko izen sintagmari modifikatzaile murriztatzailearen bat gehituz gero (nik beltxean adierazitakoa), irakurketa espezifikoa hartzen duela sintagmak; horren efektua litzateke *there* esaldirik ezin osatzearena (14b.).

Ikusten da, beraz, subjektuan izen sintagma ahula dutenetan ere badela graduazio bat, eta berori zenbat eta espezifikoa, orduan eta zailago duela predikatu iragankorak hartu eta, ondorioz, existentzialak deribatzen. Nolabait esateko, sintagma indartuen gisara funtzionatzen dute, *there* ezartze hori onartzen ez dutenean (ikus, berriro, Milsarken laneko eztabaida, lan honetan berean gorago emana).

Halaxe azaldu nahi izan dugu ekialdeko euskararen adibideetarako ere. Gure kasuan efektu diferente bati erreparatu diogu, ez diegu esaldi existentzialetan gerta daitezkeen murriztapenei begiratu: gurean, subjektuko sintagma zenbat eta espezifikoa, orduan eta artikulua hartzeko joera handiagoa predikatuak, izen sintagma prototipikoki indartuarekin duen harreman estuaren adierazle.

¹¹ Efektu honen sakoneko arrazoa, alegia, subjektuaren ezaugarri baten arabera predikatuan morfologia gehiago ezartzearen arrazoa, ez dut ondo ulertzen. Agian ni baino gehiago dakiten semantikalariak horretan lagundu ahal izango dute, xehetasun eta ñabarduretan aurrera egin dezagun.

¹² Egia da plural biluziek interpretazio indartua ere izan dezaketela, baina ez dugu orain eztabaida hori zabalduko.

Subjektuaren eta beronen predikatuaren arteko harremana hartu dugu aintzat analisi honetan. Seguru aski hemen eskaini ditudan pausuak ez dira aski izan predikatuetakoa artikuluen hedatzearen fenomenoaren osotasunean ulertzeko, baina espero dut arazoaren atal bat gutxienez kokatua utzi dugula, eta hainbat faktoreen elkarreragintza aztertzearen ezinbestekotasuna argi geratu dela. Egin beharreko hainbat lanen artean, ikasi behar genuke euskalki horietan *-a* horrek ze status zehatz duen, zenbatzaile unibertsalekin ze harreman duen zehaztuz, esaterako. Esan liteke, ia-ia, euskalki bakoitzak monografia deskriptibo bana eska lezakeela artikuluen erabilerari dagokionez.

Azpiatal hau bukatzeko, eta hemen emandako hipotesiaren behin-behinekotasunaren aldarri, gogoan hartzeko beste puntu bat: D-elementuen hedatzeaz arduratzen diren lanetan (Greenberg 1978, Himmelmann 2001), asumitu ohi da D-elementu horien hedatzea izen sintagmen erreferentzialtasun eskalari segitzen diola; hots, D-elementua lehenago erabiltzen da erreferentzialtasun status handiena duten izen sintagmetan, eta bertatik, modu gradualean, erreferentzia mailan behera egiten duten izen sintagmetara (izen sintagma definitua > izen sintagma indefinitu espezifikoa > izen sintagma indefinitu ez-espezifikoa...), batere erreferentzialak ez diren izen sintagmetara azkenik iristeko. Baina Masicak (1986) argitzen duen bezala, artikuluen hedatzeak ez du ezinbestean bide hori segitzen, hego Asiako zenbait hizkuntza kasu. Badugu, bestalde, Irigoienek (1985) gogora ekartzen diguna ere: erromantzeetako singular / plural bereizketak euskararen baitan bereizketa hori egin beharra eragin du. Ezaugarri morfologiko horrek definitutasuna markatzearekin berehalako lotura ez badu ere, euskarak, dirudienez, artikuluetan baizik ez duen singular / plural bereizketa erabili du horretarako, eta horrek, esango nuke, erreferentzialtasun eskalekin interferentzia bat gehiago dakar.

2.2. Objektu biluziak Zuberoan eta Erronkarin

Aurreko atalean adjektibo predikatuetan antzeman ditugun artikuluen erabilera berezi zenbaiten berri eman dugu, azalpen baten hasiera izan daitekeena agertuz; era berean, maiz geratu da agerian, nire analisi ez oso-osokoa lekuko, gai honek behar duen lanketa sakonaren beharra. Halako gaitan berezituago diren ikertzaile semantisten esku dago lekukoa, edo haren parte bat, bederen.

Honako atal honetan objektu posizioari begiratuko diogu, horietan aurkitzen baitugu artikuluen ez-erabilera interesgarri bat.¹³ Zenbait azterketa sinkronikotan esan izan da euskaraz ez dagoela objektu indeterminaturik; halaxe da, beharbada, euskara batuan nagusi den morfosintaxiarentzat, baina euskarari bere osotasunean begira jartzen garenean, eta euskalki ezberdinetako datuak aintzat hartzen, halako baieztapenak ñabartu beharrean suertatzen gara. Ikus honako esaldiak:

(15) *bertsu kantatzen, pinu pikatzen, arto xuritzen...*

Halakoak ekialdeko euskaretako ezaugarri dira, baina mendebaldeko hizkeretan ere arruntak dira *potro jorran* eta antzekoak. Ezin aipatu gabe utzi, jakina, (15)eko adibide hauek guztiak aditz izen lokatiboak direla, edo bestela esanda, aspektu ez burutuko ekintzak adierazten dituztenak, ebentualteratibo izenda daitezkeenak, gorago ere iradoki bezala beren menpeko izenen erreferentzialitate maila apalarekin bat

¹³ Jakina, ez-erabileraren berezitasuna beti ere euskara standard-aren, edo erdialdekoaren morfosintaxiaren ikuspegitik begira. Egia esan, standard-ak edo erdialdekoak artikuluz egiten duen erabilera "exajeratua" ere aski interesgarria da, berez.

egiten dutenak (Hopper eta Thompson 1980); ez da, beraz, ausaz gertatu, euskalki batzuetan gehiago besteetan gutxiago, halakoetan gorde izana nagusiki mugatu gabeko objektuen adibideak.

(15)ekoak ere badirela gogoan hartuta, guk agian interesgarriagoak diren adibideetara joko dugu, (15)ekoentzako inork aldarrikatu bailezake espresio eihartuak edo direla. Ikus (16)ko adibideak:

(16) Oihenart (1657) (Altuna eta Mujika 2003)

a. 279. **Inzaur** duenak jateko, aurkit diro **harri** hausteko.

Celui qui a **des noix** à manger, trouvera **assez de pierres** pour les casser

b. 216. **Haur** duenak, anhitz behar; ez-tuenak, gogoan behar.

Celui qui a **des enfants**...

Halakoak ez dira gutxi aurkitzen euskarazko testuetan, baina ez bakarrik *ukan* aditzarekin, bestelakoekin ere bai. Mitxelenak (1987: 293) berak dakarren Leizarragaren esaldia esanguratsua da, besteen artean:

(17) Leizarraga (1571, Rom. 11, 8.) (Linschmann eta Schuchardt 1900)

Eman ukan draue laincoac spiritu ithobat: eta **beghi**, ikus ez-tecantcat: eta **beharri**, encun ez-tecatencat ...

(18) Zuberoa eta Erronkariko euskara

Etxebarne (2006: 34)

a. **Sagar** ebatsi dü, nonbait, sosik ez düke / lüke erosteko

Zapirain (2005: 40')

b. ... hoi bizitzen balin bada, Xibeuk badü **baikortasun** eta **itxaropen**

Bernat (1975-78)

c. banek egoztan zia **gaztaña**, beste banek **iltzaur**, beste bat **sagar**, eta **deiru** ere bai.

d. ... eta guziek hiltan balin bagunien **txerri**...

e. ... pues emoiten gunia, banek **lukainka**, bestek **lomo**, bestek **ogi**, ...

Mendigatxa (Irigoyen 1957: 129-35)

f. ... nik, kementik oiltendaudala **paper** eta **estalki**, eskribidaztadan alchatruk

g. ... **mezu** oilbeztad

Ikus daitekeen bezala, iparraldeko testu zaharretan eta baita erronkarierazko azken lekukotasunetan ere halakoak ia nonahi aurki daitezke, eta dirudienez, objektua eskatzen duen edozein aditz trantsitiborekin gerta daitezke. Ez da, gainera, testuetako gauza hutsa –norbaitek zalantzan jar lezake Etxebarne (2006) bezalako lan batean, gramatika batean alegia, zenbateraino den normatibizazio gogoaren ondorio halako adibide bat agertzea- egungo Zuberoan ere halakoak aditza ez baita zaila, (18b) lekuko.

Adibide sorta honekin, nik uste, agerian geratzen da euskarak, bere aldaera standard-enean ez bada ere, badituela izen biluziak argumentuetan, objektu posizioan. Ez naiz ni lehena, bistan da, honetaz ohartzen; euskalaritzaren historian beste askok ere

aiptua dute ezaugarri hau, Lafonen beraren lanak hor ditugu (1954; 1970), edo Mitxelenaren beraren aipu hau lekuko (1987:293):

Ahora bien, a lo largo de toda la corta historia de la lengua vasca, e incluso en lo que se puede reconstruir o adivinar de su prehistoria, se observa un rasgo constante, cada vez mas manifiesto: la progresiva sustitucion de la declinación indeterminada, que casi no subsiste mas que residualmente, por la determinada.

Hala izanda ere, sinesten dut Mitxelenak “residual[mente]” izendatzen duen izen biluzien (indeterminatu edo mugagabe, nahiago bada) erabilera hortatik ere zenbait orokortze interesgarri proposa genezakeela; hurrengo azpiatalean, beraz, argumentu horiek zergatik ez duten artikulurik hartu argitzen saiatuko naiz.

2.2.1. Ekialdeko objektu biluzien nolakotasun semantikoa

Idea nagusia zera da: (15, 16, 17)ko izen sintagmak izen zenbakaitzak edo izen zenbakarri interpretazio plural indefinitudunak dira, eta horregatik ez dute artikulurik hartzen. Ikus dezagun nola aldeztu daitekeen ideia hau beste hizkuntzetan (ere) gertatzen diren fenomenoei begira.

Lehenagoko lan batean (Manterola 2006) ohartarazi genuen bezala, jokoan diren izen sintagmen izaera semantikoak berebiziko garrantzia du artikulua hedatzean; Company (1991) lana izan genuen hizpide orduan, bertan Erdi Aroko gaztelaniaren artikulua (latineko *ille* erakusletik datorrena, D-elementu peto-petoa, beraz) hedatzerako esanguratsu ziren irizpideak aztertzen baitziren. Gure burua orain eta hemen dagokigunera mugatzeko, Companyren lan hartako puntu bakarra gogora dezagun: berak aztertutako testuetan izen abstraktu eta zenbakaitzak ziren artikulua azkenik hartzen zutenak, gaur egun ere, artikulua hartzeari dagokionez, bariazioan direnak halako izen sintagmak izateraino.

Diakroniaz ari ez diren lanetan ere maiz aztertzen dira izen zenbakaitzak eta zenbakarri pluralak batera. Suomiera da ikuspuntu horretatik aztertu izan den hizkuntzetako bat; bereziki interesgarri suertatzen da, gainera, artikulurik ez duen hizkuntza batean definitutasunaz mintzatzean bertako ikertzaileek nolako jarrera hartzen duten; izan ere, Milsarkek adierazten duen bezala (1977: 5), definitutasunaren kontzeptuaren erabilera hizkuntza indo-europar ezagunen araberakoa izan da, hizkuntza horiek agertzen duten morfologia jakinari oso lotuta:

The term has been used for generations in the pedagogy and scholarly description of the Indo-European languages, but within that tradition it is usually used only in discussing the overt formal contrast between “definite” and “indefinite” determiners such as English *the* and *alan*.

Välmaa-Blumek (2000/2001) suomiera aztertzen du, hizkuntza fino-ugrioa, ez indo-europarra beraz. Hizkuntza horretan ez da historikoki artikulua definitu dei daitekeen D-elementurik, nahiz eta azken urteotan badirudien erakusle zenbaitek gramatikalizazio bide hori hartu duela (eztabaida sakonerako, ikus Laury (1993; 1997) eta Juvonen (2000)). Interesgarria da, nioen bezala, horrelakoa den hizkuntza aztertzen duten espezialistek definitutasunaz duten ikuspegian aldeak bai baitira, ez da-eta artikulua duten hizkuntzen azterketatik eratorri izan denaren parekoa; haien lanetan maiz agertzen da guk definitutasunaz ulertzen dugun hori beste zenbait kontzeptutan deskonposatua, Chestermanen (1991) lanean, esate baterako. Välmaa-Blumek ere antzeko zerbait egiten du, eta haren bidea segituko dugu neurri batean hemen; autore honek bereizten duen “definitutasun” motatako bat berak *Quantification-definiteness*

deitzen duena da, eta honi begiratuko diogu hurrengo paragrafoetan, (16, 17, 18) adibideentzako argigarri izan daitekeelakoan.

Suomieraren partitiboaren semantika kuantifikazio forma bat da, eta haren oinarritzko funtzioa zehaztu gabeko kopuruak (*unspecified quantities*) denotatzea da (Välímää-Blum 2000/2001: 186). Horren adibide dira honakoak, Välímää-Blumen lanean (3a) eta (5a) direnak:

(19) a. *Pihalla juoksi poikia.* Adesibo singagma-Aditza-Subjektua
yard -ADE ran boys-PAR
“There were boys running in the yard.”¹⁴

b. *Lattialla on vettä.* Adesibo singagma-Aditza-Subjektua
floor-ADE is water-PAR
“There is water on the floor.”

(19) ikusten dugun bezala, esaldi mota berean, ingelesez existentzialarekin itzultzen dena, subjektuan izen plurala dugu (19a)n eta izen zenbakaitza (19b)n. Agerian da, beraz, izen zenbakaitzek eta plural biluziek morfologia bera hartzen dutela, partitiboarena (PAR); honek, goraxeago esan bezala, kuantifikazio mota bat ezartzen dio izenari, edo kuantifikazio jakin batekin batera agertzen da. *Q(quantification)-indefinite* deitzen die Välímää-Blumek (2000/2001: 184) sintagma hauei:

When the subject is in the (bare) partitive, the referent has fuzzy boundaries, which are either unspecifiable or explicitly left unspecified in the universe of discourse, thus Q-indefinite.

Terminologia hau gora-behera, niretzako interesgarria dena zera da, kasu honetan ere izen zenbakaitzak eta plural biluziak batera doazela hartzen duten morfologian. Ondoko aipuan ere ikusten dugun bezala, bi izen mota hauek modu beretsuan jokatzen dute hizkuntza ezberdinetan, artikularen erabileran efektu antzekoak erakutsiz:

“[...] the most obvious resemblance resides in the fact that mass nouns characteristically appear without articles, just as the bare plurals do” (Välímää-Blum 2000/2001: 193)

Hauxe da, azken aipu honetako, gure euskarazko adibideetan gertatzen dena: euskararen kasuan, plural biluzietako zein izen zenbakaitzetako morfologia eza berdina da; horiek dira azkenak, bilakabide diakronikoan, artikulua hartzen, eta ekialdeko euskarak egoera horretantxe dira.

Izen zenbakaitzen eta zenbakarri pluralen biluztasun horren esanguraz ari da, halaber, Longobardi (1994) italiarentzako, Rodríguez (2003: 21) lanaren aipuari jarraiki, baina zalantzan jarriz halako izen sintagmak zinez argumentutzat hartu daitezkeen, ala adierazpen idiomatiko “soil” gisa hartu behar ote diren. Ez dut uste hona

¹⁴ Interesgarria da, zinez, euskarak nolako ordaina emango lukeen esaldi honetako *poikia* edo *boys* izen sintagmarentzako, nire juzkuen arabera ezinezko bailitzateke *mutilak* bezalako zerbait erabiltzea. *Mutilak patioan korrika ari ziren* bezalako esaldi batean *mutilak* sintagmak irakurketa definitua du ezinbestean. Hau esanguratsua da oso *-ak* morfemaren balioaz eta jatorriaz gogoeta egin nahi badugu; diakroniaren ikuspegitik aritu nahi badugu, honek pentsa arazi gaitzake hain ez-definitu diren sintagmetan (edo *Discourse-indefinite* eta *Quantification-indefinite*, Välímää-Blumen terminoetan) *-ak* morfemaren erabilera berantiarra edo ezinezkoa behar dela izan, bere erakusle jatorria (eta, beraz, definitu) medio. Ezin besterik esan oraingoz, besteak beste *-ak* morfemaren erabileraren deskripzio zehatza falta dugulako, bai euskara standardarena, euskalkiena eta baita aldaera diakronikoena ere.

ekarri ditugun adibideak, suomierazkoak zein euskarazkoak, adierazpen idiomatikoak direnik, baina sinesten dut euskararen baitan bertan adierazpen idiomatiko gisa eihartutako kasu asko dugula, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Bada, horiek oro, eta orain arte ez diogu arretarik ezarri, euskarak ingelesa edo suomieraren ondoan bereizgarri duen ezaugarria: euskarak ez du berezko plural markarik,¹⁵ eta orain arte suomiera eta ingelesarentzako *bare plural* edo plural biluzi terminoekin izendatu ditugunen partez ekialdeko euskaretan, eman ditugun adibideak lekuko, izen biluziak ditugu, bere horretan. Eztabaida piztu genezake, euskaraz, edo ekialdeko euskara horietan, bederen, izen guziak zenbakaitzak edo masazkoak ote diren, edo izendatzen dutenaren kontzeptu “hutsa” denotatzen duten; Chestermanek (1991) bere laneko sarreran badakar halako ideien gaineko gain-begirada bat, eta ez gara gu orain halako xehetasunetan barrena abiatuko. Ekar dezadan, horren partez, izenen biluztasunari dagokionez euskararen antzera jokatzeko duten hizkuntzen aipu bat edo beste; Koreera eta Turkiera izango ditugu aipagai:

[...] the form labelled singular in Korean grammars, which incidentally has zero expression, may be either specifically singular, or on occasion be used when more than one object is involved [...]. Thus it may be presumed that the Korean listener interprets the zero form usually or *par excellence* as singular but as plural where the situation demands it. (Greenberg 1966: 28)

Koreeraz, beraz, dirudienaren arabera izen biluziak kontestuaren arabera interpreta daitezke singular ala plural. Turkierazko ondoko aipu eta adibidearekin hobeki ikusiko dugu hau (Lyons 1999: 96):

“In general, *bir* [*bir* ‘bat’ zenbatzailea da turkieraz] is only used when the indefinite noun phrase refers to a particular entity, that is, when it is a specific indefinite (as in *I’ve just bought a superb car*). Where there is no specific referent (for example in *I’m looking for a reliable car*, where I do not have a particular car in mind), or where the identity of the thing referred to is of no importance for the discourse, Turkish has the option of using the bare noun, without determiner, and without number marking. The noun is therefore vague as to number in this “incorporation” construction. Consider (78), where the non-specific bare noun is a direct object:

(78) Dun mektup yaz-di-m
 yesterday letter write-PAST-1SG
 ‘Yesterday I wrote a letter/letters’

Bi gauza inportante azpimarratzen dira Lyons-en aipu luze honetan: batetik, gorago suomierarentzako ikusi dugun bezala, halako sintagmek duten erreferentzialitate statusa, ez-espezifikoa, zehaztugabea edo diskurtsuan garrantzi gutxikoa da. Bestetik, interesgarri suertatzen da Lyons-ek objektu horiek osatzen dituzten egituretan inkorporazioaren fenomeno gogora ekartzea.

Nire ustez, koreeraren eta turkieraren¹⁶ funtzionamendu hau euskararen garai bateko funtzionamenduarekin bat egiten du, egun ere ekialdeko euskaretan aztarna eta ez hain aztarna gisa antzematen duguna; euskara arkaikoaren ezaugarri gisa ikusten dut, bestela esanda, objektu biluzi hauen erabilera.

¹⁵ Seguru aski euskara standardaren joera *-ak* hori *bare plural* edo plural biluzien antzera erabiltzearena da, inguruko hizkuntzen ereduaren eraginez, Irigoienek (1985: 129-30) aipatzen duen bezala. Bide batez, interesgarria da halako pluralez (ingelesaz eta suomieraz ari da, jakina, ez euskaraz) Välimaa-Blumek (2000/2001: 181) dioena, esplizitiko esaten baitu plural biluziak ez direla singular indefinituaren bertsio plurala, ez baitute erreferentearen status diskurtsiboa adierazten; aitzitik, erreferentearen kuantifikazioaren esparruari dagokion zerbait da pluraltasun hori. Horren bidetik uler liteke, agian, Artiagoitia (2002) lanean X-sintagma “misteriotsuarentzako” proposatzen den zenbaki-sintagma.

¹⁶ Ez hain kasualitatez, seguru aski, bi hizkuntza hauetan zenbatzaile kardinaldun sintagmetan izenak mugagabeen edo bertsio biluzian ezarri behar dira, euskara osoan bezala (*bi gizon, hiru ume...*).

Ondoko atalean euskarazko adibideei ekingo diet berriz, orain arte eman ditudan hizkuntza arteko paraleloek eskaintzen duten laguntza baliatuz.

2.2.2. Ekialdeko euskal izen biluzien semantikara oinarritzko hurbilketa

Aurreko atalean ikusi dugu, suomiera adibide, munduko hizkuntzetan plural biluziak eta izen zenbakaitzak batera doazela gramatikaren atal askotan. Turkierarekin eta koreerarekin, bestalde, ikusi dugu izen zenbakarri biluziak plural gisa interpreta daitezkeela irakurketa ez-espezifikoa. Badirudi euskarazko adibideak ildo nagusi hauei jarraiki ondo uler daitezkeela.

(16ab)ko Oihenarten errefrauetan *inzaur duenak* eta *haur duenak* esaldietan ikusten dugu bi izen zenbakarri ditugula, bere bertsio biluzi edo mugagabeen: hartzen duten interpretazioa ez-espezifikoarekin batean *Q-indefinite* interpretazioa ere badute, kopuruarekiko axolagabe, alegia, eta hartara, Greenbergen goragoko aipuan ikusi dugun bezala, plural gisa interpreta daitezke; halaxe dugu, izan ere, frantseseko itzulpenean *des noix* eta *des enfants*. (16a)ko *harri* izen biluziarekin gauza bera gertatzen da, nahiz eta kasu honetan zalantzan jar litekeen izen zenbakarri interpretazio ez-espezifikoa pluralduna (*Q-indefinite* izatearekin batera) ote den, ala harriaren “materiari”, nolabait esateko, erreferentzia egingo liokeen izen zenbakaitza; zalantza honek, dena den, besterik ez du egiten izen zenbakaitzen eta zenbakarri pluralen arteko hurbiltasuna agerian uztea baino.

Leizarragaren (17)ko adibidean ere, ageri da *beghi* eta *beharri* izen zenbakarriei erreferentzia egiten zaienean ez dela diskurtso horretan haien kopuruaren zehaztasuna esanguratsua. Hitzaren erreferente zehatza ez da inportantea, hitzaren ideia aipatu nahi da, besterik gabe, edo gauzak teoriaran urrutirago eraman nahi izatera, Etxeberria (2005) lanean beste sintagma batzuentzako aldarrikatzen den *kind* irakurketa ezarri nahi zaie; ez gara, baina, oraingo eginbeharretik urrundu gindukeen proposamen interesgarri horretaz arituko, hemen aipatzen direnekin lotura estua dutela aitortu nahi badut ere. Hortaz, bada, Leizarragaren adibideko izen zenbakarriak plural biluzi gisa itzuli daitezke ingelesera edo gaztelaniara.

Zuberoako eta Erronkariko adibideetan,¹⁷ (18)n, halako gehiago ditugu. Izen biluzi hauen artean zenbakaitz prototipikoak ditugu, *deiru*, *ogi*, *paper*... bezalakoak; (18b) adibidean, bestalde, izen abstraktuak ditugu *baikortasun* eta *itxaropen*, tipikoki zenbakaitz direnak, hauek ere. Izen zenbakarriak ere baditugu, *iltzaur*, *sagar*, *estalki*... denak ere bere forma mugagabeen, indeterminatuen, edo orain arte esaten aritu garen bezala, biluzian. Lehen esan bezala, hauek plural gisa itzuli litezke pluralaren marka morfologikoa izan baduten beste hizkuntzetara (edo, beste hizkuntzetara joan gabe ere, erdialdeko euskarara); nahi izatera ere, hauetako zenbait *-sagar*, *iltzaur*, *gaztaña*- izen zenbakaitz gisa ere ulertu litezke, gogora bestela gaztelaniazko *he echado manzana en la ensalada*. Honek guztiak, berriz ere, lehentxeago aipatu dugun *kind* irakurketaren bidera hurbiltzen gaitu, baina tamalez ez dugu orain, esana dut, horretarako astirik.

Bi izen biluzi (edo mugagabe) hauetako biren gaineko gogoetarekin bukatu nahi nuke adibide hauen gaineko eztabaida: (18d)ko *txerri* eta (18g)ko *mezu*. Hauek ez dute, beharbada, orain artean aipatutako izen zenbakarri biluziek bezala, plural ordaina beste hizkuntzetan; seguru aski, goraxeago eman dugun turkierazko adibidean bezala,

¹⁷ Ekialde “hurbilagoan”, Nafarroa Beherean, badirudi hain zuzen ere izen zenbakaitzak eta interpretazio plural ez-espezifikoa duten zenbakarriak mugagabeen ager daitezkeela esaldi existentzialetan, beharbada balio enfatikoarekin, Maia Duguinek azaltzen didan bezala. Halako adibideak izan daitezke *bada haize* (cf. Armendaritzeko hitzun berak esandako *badu indar*, Aturri ibaiatz ari zela) edo *bada kazetari*, 2007-3-3ko Berria egunkarian Nora Arbelbide Uharte-Garaziko kazetariak idatzitakoa.

erreferentzia jakinik edo espezifikorik gabeko izenak dira: ez da haien pluraltasuna¹⁸ edo singularitasuna inporta duena, baizik eta haien erreferente zehatza ondo zehaztu nahi ez izatea, hiztunak horretarako gogorik edo beharrik ez duelako, edo besterik gabe ez delako esanguratsua izen horrek mundu errealean erreferentzia zehatza izan dezan. Ikusten dugu, horren adierazle, *mezu oilbeztad* adibidean *mezu* izenaren erreferentzia etorkizunera proiektatzen dela, bidaliko den balizko *mezu* batera, eta horrexegatik, existitzen ere ez baita, eskatzen du hain zehaztasun maila apala.

Ekialdeko adibide hauetan aurreko azpiatalaren amaieran eta 17. oharrean aipatu dudan euskara arkaikoaren ezaugarriaren isla ikusi nahi dut; horiek horrela, izen biluzien erabilera hau garai bateko euskararen ezaugarri baldin bada, espero izatekoa da beste lurraldeetan ere, garai zaharagoetan, halakoak aurkitzea. Halaxe gertatzen da; hemen horietako adibide zenbait baizik ez dugu emango:

- (20) a. Pero Periz Garidario (Nafarroako antroponimo bat)
- b. egoszi **vr** ardaoan, **bildurr** egosçi (Arabako hiztegi bateko sarrerak)
- c. 466 Guivel eguioc ecachari ‘hazle espaldas a la tempestad’ (Bizkaiko atsotitz batean)

Irigoienek (1985: 135) dakarren 1366ko *Pero Periz Garidario* antroponimoa dugu (Carrasco Pérez 1973: 590), *gari* izen zenbakaitza bere forma biluzian, mugagabeen duela. Baina mendebalderago jota ere badugu egoera zahar horren erakusle direnak: (20b)ko Landuchioren (1562) hiztegiko sarrera batean (Knörr eta Zuazo 1998: 209), esaterako, *egotzi ur ardaoan* agertzen da, *ur* izen zenbakaitzarekin. Bestean (1998: 221), berriz, *bildur* *egotzi* dugu, *beldur* izen abstraktua aditzaren objektu. Beharbada *Refranes y Sentenciaseko* (1596) 466. errefrauan ere antzeko zerbait ikusenez, izen zenbakarria den *gibel*, mugagabeen ageri dena, gaztelaniazko ordainean plurala baita, *espaldas* (Lakarra 1996). (20c)ko hau, jakina, nahi izatera espresio idiomatiko gisa har liteke, baina egia da ere bai gaur espresio idiomatiko direnak garai bateko morfologia eta sintaxiaren aztarnak gorde ohi dituztela.

Espresio idiomatiko direlako hauen bidetik, eta *guivel eguioc* hori gidari hartuta, jo dezagun orain egun haien analisi sinkronikoan hainbeste buruhausteren sorburu diren *X + egin* aditz inergatiboetara (ikus, eztabaida eta erreferentzietarako, Oyharçabal 2006). Diakroniaren ikuspegitik bederen, (16, 17, 18)ko adibideak bezalaxe analizatu nahi ditut nik aditz inergatibook: erreferentzia maila apaleko, ez-espezifikoko izen sintagma mugagabeak *egin* aditz arinari lotu zaizkio, lexikalizatuz eta aditz berriak sortuz. Gogoan izan aurreko azpiataleko Lyonsen (1999: 96) aipua, izen biluzien ez-espezifikotasun edo mugagabetasunaren eta inkorporazioaren arteko harreman estua nabarmentzen zenekoa. *lo egin, lan egin, amets egin, hitz egin/berba egin...* egitura inkorporatu gisa aztertu izan dira inoiz, *lo, lan* bezalako izen biluzi abstraktu eta zenbakaitzak objektuan (dei dezagun objektu) dituztelarik.

Izen zenbakarriei dagokienez, oso interesgarria den bikotea dugu *hitz egin/berba egin*; esango nuke *hitz egin* bezalako espresio bat itzultzeraz bortxatuak bagina, *parler* edo *hablar* erabili gabe, *faire des mots* edo *hacer palabras* esango genukeela, goian, (16)n Oihenarten adibideetan ikusi dugun itzulpen pluralean bezala. Galdera berehalakoa da: bizkaierazko horretan, mailegu argia den horretan, zer da zehazki mailegatu dena? Latineko hitza *verbum* zen nominatibo eta akusatibo singularrean,

¹⁸ Gogoan izan behar da, gainera, pluraltasunaren kontzeptua ere, definitutasunarena bezala, mendebaldeko hizkuntza dominanteen arabera zedarritu izan dela hizkuntzalaritzaren historian. Ez dugu, beraz, asaldatu behar koreera, turkiera eta are euskara arkaikoa bezalako hizkuntzekin lanean ari garenean ere, ikusten badugu pluraltasunak ez duela hizkuntza ezagunago horietako gramatiketan duen zama bera.

beraz badirudi bertatik mailegatu izatera ***berbo*, ***berbo egin* maileguak beharko genituela; *berba* dugu, ordea. Nik esango nuke latineko plurala mailegatu zela, nominatibo zein akusatiboan *verba* zena, zergatik eta halako egituretan, *hitz egin* bezalakoetan, izen biluziak bazuelako kopuruan mugatu gabeko interpretazioa, ondoko hizkuntzan (edo hiztun elebidunaren burmuinean, hobe esan) plural ez-espezifikoa (edo *Q-indefinite*, nahiago bada) gisa adieraz zitekeena.

Azken hipotesi honek, bistan dena, lanketa sakonagoa behar du, besteak beste latinaren garai hartako pluralen erabilerarena, halako hitzek latinean berean nolako erabilera ote zuten... eta baita euskarari begiratze beretik etor daitezkeen gogoeta eta kritikena ere.¹⁹ Baina hipotesi ttiki hau gorabehera, anekdota gisa har daitekeena, nago hemen aipatu dudan mugagabearen erabilera eta beste hizkuntzetan ikusi dugun izen zenbakaitz eta plural biluzien gorabeherak badakarrela ildo beretik ikerketan segitzeko aukera, hemen aipatutako ñabardurez gain semantikalari finagoak direnak xehetasun gehiago eztabaidara ekarriko dituztelakoan.

3. Lan honen laburpen, ekarpen eta etorkizuneko bideak

(2) zenbakian artikulua deitzen ditugun horien jite diakronikoaren gramatikalizazio bidea zein den irudikatu dugu. Bide horren barrenean hamaika xehetasun eta ñabardura aurki daitezke, Himmelmannek gogoratzen duen bezala (2001: 832) :

Definiteness and specificity are only two salient (and crosslinguistically well attested) stages on the grammaticization path in (1) [artikuluen, D-elementuen gramatikalizazioaz ari da]. Given a sufficiently fine-grained set of criteria, many more stages could be distinguished.

Honako lan honetan bide horretan irizpide esanguratsuak zein izan daitezkeen bereizten saiatu gara, euskararen duten eraginari begiratuta. Nago alde horretatik erakusleen gramatikalizazioaren eztabaida orokorrerako, Himmelmannek dakarren *fine-grained set of criteria* horrentzako ekarpen txiki bat egin dugula. Bi aldekoa izan da ekarpen hau: batetik, iradoki dugu Nafarroa Behereko eta Zuberoako hizkeren artean predikatuetan aurki daitezkeen aldeak, artikuluen erabilerari dagozkion aldeak, predikatuetako beretako adjektiboen izaera semantikoaren araberakoak izan daitezkeela, baina baita esaldi horietako subjektuetako sintagmaren erreferentzialtasun mailaren, edo errealitate “ukigarrian” duten ainguratze mailaren araberakoa ere. Bestetik, ekialdean, bereziki Zuberoako hizkeretan eta Erronkariara desagertuan, objektu posizioan agertzen diren zenbait sintagmaz arduratu gara: sintagma horietako izenak bere joko mugagabea, “biluzik” agertzen dira. Biluztasun hori izen horien erreferentearen semantikari egotzi diogu, izen biluzi horiek kopuruan mugatu gabeko, ezin mugatuzko edo mugatu nahi ez diren elementuei egiten baitiete erreferentzia, kuantifikazioaren aldetik zehaztu gabeko elementuak dituzte erreferentziagai; bide horretatik hainbat azterketa sinkronikotan izen zenbakaitz eta zenbakarri pluralen arteko kidetasuna euskararen diakroniazko eta dialektologiazko datuekin berretsi dugu.

Nagusiki gorabehera semantikoak izan ditugu gidari artikuluen hedatzean euskalki eta garaien artean antzeman daitezkeen aldeak azaltzeko; ez dut beharbada semantikalari peto batek nahi lukeen bezala gogoeta formalizatua egin, baina espero dut

¹⁹ Besteak beste, Joseba Lakarrak aipatu izan didan bezala, aukera bat izan daiteke tartean konposaketaren bilakaera izatea, *baso* > *basa*- bezalakoetan duguna. *Berba* hitzarentzako, ordea, ez dugu ***berbo* hitzik. Céline Mounolek, bestalde, galdera egiten dit, nire hipotesiak nola azaltzen ote duen mendabaldeko hizkeretako *berba bat*, erabat sintagma singularra. Arazo hauek eta gehiago aipatzea ezinbestekoa da, eta baita, inoiz zorterik bagenu, datu berriak eztabaidara ekartzea ere.

lan honek aurrerantzean besterik ekarriko duela, nik hemen botatako ideiak modu zehatzago eta beharbada formalagoan taxutuko dituztenak. Gai honetan lan gehiena egiteko dago euskararen diakroniari dagokionez, Mitxelenak hasitako bidearekin aurrera egiteko; hortxe ditugu testu zaharretan artikulurik gabeko posesibozko egiturak, egungo euskararen ezinbestean artikuludun egitura gisa deskribatzen dena (cf. Leizarraga 1571, Rom. 11, 12 *Eta baldin haien erortea munduaren abrastasun bada*) edo izen + adjektibo predikatuen agerrera artikulua gabeak, Mitxelenak Axularrengan ezinezkotzat jotzen zituenak (cf. Etxepare 1545 *Harzaz unsa orhitzia zuhurzia handi da*). “Badela lan!” beraz, horretan aritzeko.

Zorionez, beharbada, lana gehiagoren artean banatu ahalko baita, ez da hutsa semantikarien eginbearra izango. Ikusi dugun bezala, aldaera dialektologikoen esangura berebizikoa da; ez naiz horren garrantziaz gehiago luzatuko, lan honetan zehar eskaini ditudan adibide eta analisisiek zalantzarik ez baitute utzi. Gehienez ere, Mitxelenaren “Lengua común y dialectos vascos” (1987: 35-55) lanaren gorazaharre, azken ideia batzuk, edo galdera batzuk, proposa genitzake gure lanaren alderdi dialektologikoaren urruneko gidari: gorago, 2.2.2. atalean, ekialdean artikulua gutxiago erabiltze hori arkaikotasun zantzua zela esan dugunean, zer esan nahi izan dugu zehazki? Galdera bestela eta zehatzago formulatuta, arkaikotasun hori zeren adierazgarri da? Bi erantzun bide ikusten ditut oraingoz:

-Onartuta *-(h)a* artikulua Euskara Batu Zaharreko (EBZ) ezaugarri dela, bertatik gutxien aldendu diren euskalkien egoera erakusten dute ekialdeko zuberotar eta erronkaria.

-Edo, artikulua EBZ bera baino berantiaragoa izanik, mendebaldetik ekialderako hedatzen ari den morfemaren zantzuaren izan daiteke aldarrikatu dugun arkaikotasuna.

Erdi bideko azalpenak ere ongiatorriak izango dira, euskalkien arteko elkarreraginaren errealtate protohistorikoak seguru aski bi aukera soil horien hoztasun akademikoa gaindituko baitu. Dialektologia diakronikoak esan diezagukenaren zain ere bagaude, beraz.

Hizkuntzen arteko kontaktu harremanez aritzen direnek ere badute zeresan. Azken urteetan hizkuntzaren teorian kontaktuaz eta hizkuntzen arteko elkarreraginaz ari diren lanak ugaritu dira (Aikhenvald 2002; Heine eta Kuteva 2005; Thomason 2001; Thomason eta Kaufmann 1988); espero izatekoa da, hortaz, ideia ildo hori ere gurera ekarriko dela, saio ustel, baina azken batean aitzindarien gainetik (Haase 1992).²⁰ Horretan, seguru aski, guri dagokigun gaian ohar interesgarriagoak egin zituen Irigoienek (1985), predikatuetako artikuluen erabilera hizkuntza erromantzeen singular/plural bereizketaren eraginari egotzi zionean.

Fonologia, azkenik. Bada hizkera zenbait, Bidasoa aldeko zoko horretan, artikulua izenaren parte bereiztezin gisa erabiltzen hasi direnak: Hondarribiko hitzun askoren (ikus Sagarzazu 2005: 71) ahotan *trena bat*, *laguna bat*, *egin dut hitza*²¹ bezalakoak aditu daitezke, baina ez dakit zenbateraino diren arruntak ??*besoa bat*, ??*herriya bat*, ***egin dut loa*. Nago, beharbada, artikuluen zabaltzearen azkenetariko pauso izan daitekeen horretan, silaba egitura jakin bat gorde behar izateak bere zama izatea, inongo baldintza semantikotik at. Badirudi *bat* artikulua indefinituarekin osatzen diren sintagmetan, artikuluen aurreko izena kontsonantez bukatzen bada joera handiagoa dela artikulua (horrezkero definitutasunarekin zerikusirik batere ez lukeena,

²⁰ Honen kritikarako ikus Manterola (argitaratzeaz).

²¹ Era berean, esango nuke *egin dut hitza* esaldien parekoak arruntagoak direla ??*egin dut ametsa* bezalakoak baino. Hitzen luzera ere (*hitz* silaba bakarreko, *amets* bi silabako) aintzat hartzekoa izango da.

noski) ezartzeko. *Be[soba]t* sintagmak CV[CVCV]C egitura du; *lagu[naba]t* bezalako zerbaitek (CVCV[CVCV]C) kontsonante eta bokalen “ondo-ondokotasuna” hobeki gordetzen du *lagu[nba]t*, CVCV[CCV]C egitura silabiko batek baino. Hona, bada, semantikarekin zerikusirik ez lukeen eta artikularen hedatzerako esanguratsu izan litekeen irizpide bat gehiago.

Mitxelena euskalaritzaren atal horietan guzietan maisu izan zen; izango ahal gara gai oso-osoko maisutasun hori alor ezberdinetako euskalarien elkarlanaren bitartez irauarazteko!

Bibliografia

- Aikhenvald, A., 2002, *Language contact in Amazonia*. New York: Oxford University Press.
- Altuna, P. & Mujika, J. A., 2003, *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. IKER 15. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Artiagoitia, X., 2002, "The functional structure of the basque noun phrase". Artiagoitia, X., Goenaga, P. & Lakarra, J. A. (arg.): *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJUren Gehigarriak XLIV, 73-90. Bilbo: EHU.
- Bernat, F., 1975-78, *Nafarroako Mintzoak*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia.
- Carrasco Pérez, J., 1973, *La población de Navarra en el siglo XIV*. Pamplona.
- Casenave-Harigile, J., 2006, *Xiberotar Gramatika*. Maule: Sü Azia. (www.suazia.com-en eskuragarri)
- Company, C., 1991, "La extensión del artículo en el español medieval", *Romance Philology* XLIV, 402-24.
- Chesterman, A., 1991, *On definiteness: a study with special reference to English and Finnish*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Diesing, M., 1992, *Indefinites*. Linguistic Inquiry Monographs 20. Cambridge, London: MIT Press.
- Etxebarne, J., 2006, *Xiberotar gramatika llaburra*. Maule: Sü Azia. (www.suazia.com-en eskuragarri)
- Etxeberria, U., 2005, *Quantification and domain restriction in Basque*. EHUko tesia.
- Etxepeare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gómez López, R., 2007, *XIX. Mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. Doktorego tesiak saila Bilbo: EHU.
- Greenberg, J. H., 1966, *Language universals. With special reference to feature hierarchies*. The Hague, Paris, New York: Mouton Publishers.
- ___, 1978, "How does a language acquire gender markers?" Greenberg, J. H., Ferguson, J. & Moravcsik, E. (arg.): *Universals of Human Languages*, 47-82. Stanford: Stanford University Press.
- Haase, M., 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: Die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*. Hamburg: Helmut Buske Verlag.
- Heine, B. & Kuteva, T., 2005, *Language contact and grammatical change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Himmelman, N. P., 1998, "Regularity in irregularity: Article use in adpositional phrases", *Linguistic Typology* 2, 315-53.
- ___, 2001, "Articles". Haspelmath, M., König, E., Oesterreicher, W. & Raible, W. (arg.): *Language Typology and Language Universals: An International Handbook*,

- Handbooks of Linguistics and Communication Science 20.1, 831-41. Berlin-New York: Walter de Gruyter.
- Hopper, P. J. & Thompson, S. A., 1980, "Transitivity in grammar and discourse", *Language* 56, 251-99.
- Irigoyen, A., 1985, "Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez", *Euskera* XXX, 129-39.
- Irigoyen, A., 1957, "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue", *Euskera* 2, 119-70.
- Juvonen, P., 2000, *Grammaticalizing the definite article. A study of definite adnominal determiners in a genre of spoken Finnish*. Stockholm Universityko tesia.
- Knörr, H. & Zuazo, K., 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*. Euskal Azterlan Bilduma 7. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*. Donostia, Baiona: Elkar.
- Lafon, R., 1954, "Le nombre dans la déclinaison basque", *Via Domitia* 1.
- ___, 1970, "Structure de la déclinaison basque". (arg.): *Actes du Xe Congrès International des Linguistes*, 279-301.
- Lakarra, J. A., 1996, *Refranes y Sentencias (1596)*. Euskararen Lekukoak 19. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Laury, R., 1993, "On the grammaticization of the definite article "se" in spoken Finnish". Andersen, H. (arg.): *Historical linguistics, Current Issues in Linguistic Theory* 124, 239-50. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins.
- ___, 1997, *Demonstratives in interaction. The emergence of a definite article in Finnish*. Studies in Discourse and Grammar 7. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Linschmann, T. & Schuchardt, H., 1900, *Leizarragas baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*. Berrarg. izenburu berarekin (1990) Bilbao: Euskaltzaindia.
- Longobardi, G., 1994, "Reference and proper names: a theory of N-movement in Syntax and Logical Form", *Linguistic Inquiry* 25, 609-65.
- Lyons, C., 1999, *Definiteness*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Manterola Agirre, J., argitaratzeaz, "-a and bat articles and contact in Basque". Chamoreau, C. & Léglise, I. (arg.): *Cross-linguistic tendencies in contact-induced variation and change – A typological approach based on morphosyntactic studies*, Paris: CNRS.
- Manterola, J., 2006, "-a euskal artikulua definituaren gainean zenbait ohar". Lakarra, J. A. & Hualde, J. I. (arg.): *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask*, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" XL, 651-76. Donostia, Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Masica, C. P., 1986, "Definiteness-marking in South Asian languages". Krishnamurti, B. (arg.): *South Asian languages: Structure, Convergence and Diglossia*, 123-46. Delhi: Motilal Banarsidass.
- Michelena, L., 1987, *Palabras y textos*. Bilbo: EHU.
- Milsark, G. L., 1977, "Toward an explanation of certain peculiarities of the existential construction in English", *Linguistic Analysis* 3, 1-29.
- Otsibar, K., 2003, *Lehenago Gamere*. Sü Azia. (www.suazia.com-en eskuragarri)
- Sagarzazu Ancisar, T., 2005, *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.
- Thomason, S. G., 2001, *Language Contact*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Thomason, S. G. & Kaufmann, T., 1988, *Language contact, creolization, and genetic linguistics*. Berkely, Los Angeles, London: University of California Press.

Välimaa-Blum, R., 2000/2001, "The English bare plural and the Finnish partitive. Nonbounded quantity in a mental space", *Languages in Contrast* 3, 181–201.
Zapirain, E., 2005, *Zuberoa Kantuz*. EITB.

ZIRRIBORROA